Aldundiak ia zer gehiago egin leiken galdetu dozu, Agenda 2030 betetea bultzatuko dauen enpresa-sarea indartzeko, Bizkaia Egiten-en adierazoten dan moduan. Horri erantzunez, Aldundiak gure politikak 2030 Agendeagaz erabat lerrokatzeko konpromisoa hartu dau. Eta, alde horretatik, daborduko hasita dagoan bidea da, legegintzaldi honetan aurrera egin dana, baina, jakina, egiteko asko daukana. Eta esango neuke etenbako aurrerapena bilatu gura dala, etenbako hobekuntza, Agenda beteteko. Esan dodan moduan, Aldundiak bere gain hartu dau konpromiso hori, eta enpresa-sarearen esparruan, Cebekegaz gabilz beharrean, Bizkaiko enpresek euren estrategiak definidu eta negozioak modu eraldatzailean garatu ahal izan daiezan, GJHei erantzunez eta interes-talde desbardinaren kezka maila globalean jasoz. Badaukagu proiektu bat, Destino 2020-2030 Helburua, 2030 Agenda betetea bultzatzeko egiten diran jarduera espezifikoak identifiketako eta lerrokatzeko balio dauena, beti be garapen jasangarrirako, sozialerako, ekonomikorako eta ingurumenerako 3 dimentsinoak erdiunean jarriz eta Bizkaiko ETEei horretarako beharrezkoak diran bitartekoak emonez.

Gure helburua da aurrera egiten jarraitzea enpresa-alkarte horreen eskutik, sentsibilizatze eta enpresei ildo horretan ibilteko tresnak eskaintzeko.

Y, por último, en relación con el desarrollo de programas específicos para empresas de economía social y/o solidaria. En primer lugar, hay que señalar que estas empresas ya están incluidas como posibles beneficiarias en todos los programas, están incluidas como beneficiarias en todos los programas, pueden acceder a todos los programas que pone en marcha el Departamento de Promoción Económica.

Y en segundo lugar, que desde este Departamento hemos puesto el foco en la promoción de proyectos de impacto social, desarrollando acciones específicas en el ámbito del emprendizaje y la innovación social, y en general en el fomento de proyectos de impacto social. Para ello, además de contar con un programa de subvenciones, contamos con un fondo de inversión de impacto con la sociedad, denominado FEIS. A destacar también que en el Departamento de Promoción Económica mantenemos contactos habituales con asociaciones como ASLE o KONFEKOOP, y como ya he dicho anteriormente, en el marco de Seed Capital Bizkaia, colaboramos con Banca Ética, KONFEKOOP, Anesvad, o la Fundación San Prudentio para la promoción de proyectos de impacto social.

Creo que eran 4 preguntas, evaluación, Seed Capital, Agenda 2030, y finalmente apoyo a proyectos de economía social. Por lo tanto, creo que he contestado a las preguntas. Gracias por la atención.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Benito Ziluaga.



El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Eskerrik asko ahaldun andrea, azalpenakaitik.

Lehenengo eta behin gauza batek artegitzen nau, ze batzuetan esaten deuskuzue egoeraren araberrako ziurbakotasunak, pandemiak edo gerrak, ez dituela Foru Gobernuaren lehentasunak aldatu, eta bese batzuetan esaten deuskuzue baietz, ez dot ukatuko hori positiboa danik. Hau da, gure taldeetik beti defendidu dogu Aldundiak bere jarduketea egokitu behar dauela, eta bere lehentasunak aldatu behar izan dituala legealdi honetan pasau doguzan egoera desbardinetera, batez be pandemiara eta gerrara.

Sailaren proiektuak ezagutzen doguz, neurri handi batean zuk komentautakoak, baina, zoritxarrez, ez dakit, igual nire kontua da, baina nik etena ikusten dot Seed Capitalen laguntza-proiektuetan edo funtsetan dagoen zatiketa hori, enpresa-sarean aitatu neutsuzan kategoriak edo dibisinoak, lehen eta bigarren mailako enpresen banaketa. Laguntzen Dekretuetan mantenu egiten da, lehen mailako laguntzen Dekretuak dagoz (3I, 2I), enpresa barrizailleak sortzeko programa, ekintzailtza-ekosistemaren dinamizazioa, zenbateko handiagoko laguntzak dira, eta kasu batzuetan baldintza zorrotzak daukiez. Eta, gero, bigarren mailakoak dagoz, Ekintzailtza eta Gizarte Barrikuntzakoak Gizarte Ekintzagaz, Eskualdeko Lehiakortasunekoakaz egiten diranak, askoz be zenbateko txikiagokoak.

Izan be, eskema hori Seed Capitalen be mantenuiduten da, ze zeuk esan dozu, funts batzuk dagoz, Bat daukagu, 19 milioi eurogaz, BI, zifra gogoratzen ez dodana, baina nahiko handia egoan, eta gero FEIS daukagu 2,6 milioi eurogaz. Jakina, Bat funtsean ekarpen gehienak Bizkaiko Foru Aldundiarenak badira, zergaitik ez dago Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpen handizaleagorik FEIS lako funts baten, ehuna eraldatzeko dana? Horixe da galdera. Ez dago eskaririk? Beno, eskaintzarik ez badago, ez da inoiz eskaririk egongo. Hori da jazozen dana.

Egoera horren aurrean, jakina, gizarte-ekonomiako enpresek, gizarte- eta ekonomia solidarioko enpresa txikiek be, ez dabe euren burua Sailean islatuta ikusten, laguntzen Dekretu barri bat heltzen jakenean esaten dabelako, “Kontua da hori ez dala guretzat”, sare horretako enpresa txikiarentzako laguntzen Dekretuak postako spamean amaitzen dira. Zergaitik da ekintzailtza gitxiago kooperatibetan? Zergaitik dagoz REASeko Prestatzen moduko proiektuak, BAT torrean tarterik ez daukienak? Nik uste dot horri benetan hausnarketa pausatua eskaini beharko leuskioela Sailak berak, eta, batez be, hurbilagoko hartu-emonetan egon eta eragileakaz sakonago lankidetzan hasi.

Eta beste galdera bat egiten dot, jakina: enpresa horreek laguntza-programa horreek guztiak eskatu lekiez, bai. Baina, bat gatoz baldintza bardinetan egin behar izateagaz? Hain burubakoa izango litzateke lehentasuna euki daien planteetea? Nik uste dot ezetz, hori legeak ahalbidetzen dau, eta, esan dodan moduan, sektore ekonomiko horren indar eraldatzailea kontuan hartuta, desiragarria izango litzatekela uste dot. Egia esan, lantzeko moduko ezin konta ahala proposamen ikusten doguz, eta oraindino be landu daitekezanak, fiskalidatean, ekintzailtza kooperatiboaren beste kultura baten, eta ez ekintzailtza indibidualean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ahalbidetzen dauen merkadu-erreserba beteteko, hor lan handia egin leitekealako, eta, esan dodan moduan, batez be berba egiten eta laguntzen, eta proiektu zehatzak ezartzen hasi, finantziarino zehatzagaz, eragileakaz.

Amaitzeko, zifra batzuk baino ez dodaz emongo, azaltzeko zergaitik uste dogun horrek estrategikoa izan beharko leukela Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. KONFEKOOPen datuen arabera, kooperatibak 60.000 enpleo dira Euskadin, industriako enpleoaren % 11. Eta REASen auditoretza sozialaren arabera, eta amaitzen noa, euren enpresetan soldata arrakala % 3koa baino ez da, eta mesedegarria da erantzukizuneko postuen % 70 beteten daben emakumeentzat. Soldata-proporzioa 1,3koa da, nire ustez arreta merezi



daben ezaugarriak dira, eta, batez be, ahalik eta bultzada handiena behar dabe Bizkaiko gizarteak be enpresa-eredu horren antza euki daian. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Benito Ziluaga. En el turno de respuesta, en representación de la Diputación, tiene la palabra la señora Basurko Urkiri.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Gracias de nuevo señora presidenta.

Benito jauna, kontu batzuk. Foru Gobernuaren lehentasunak ez dira aldatu. Urtez urte esaten gabilz kudeaketan foku bikotxari eusten deusagula, une oro 2019-2023 esparru estrategikoari eusten deusagu, eta Bizkaia ekintzaile, barritzaile, talentudun, erakargarri eta orekatuaren aldeko apustua egiten dogu, eta esparru estrategiko horretan definitu diran laguntza-programa, zerbitzu eta proiektu guztiak hor dagoz orain be. Horrek ez dau esan gura beste neurri batzuk aktibatu ez diranik, uneak halan eskatzen ebalako. Urte bitan berbaz ibili gara COVIDaren eraginari aurre egiteko berehalako preminazko laguntzetarako Sail honek kudeatutako 40 milioi euro gehigarri buruz. Beraz, koherentzia, erabatekoa, foku bikotzeko ikuspegia, enpresek egin daben moduan. Bizkaiko gure enpresek erakutsi deuskue momentuko egoereari erantzuteko gaitasun hori, baina jakinda etorkizunean inbertiduten ez baeben, barritzen jarraitzen ez baeben, egoerea asko okertu eitekeala. Eta, enpresa sareak egin dauen moduan, Foru Gobernuak be foku bikotxagaz egin dau lan.

Laguntzak. Ez daukagu lehenengo eta bigarren mailako laguntzarik, ezta gitxiagorik be. Zuk aitatu dozun gida hori apur bat aztertzen badozu, ikusiko dozu ibilbide bat dagoala, laguntzen diseinu horren atzean ibilbide bat dagoala, idea bategaz hasi daitekeen ibilbide bat, enpresa-proiektu bihurtu daitekeen idea bat, enpresa-proiektu txiker bat, barrikuntzari, produktuari, prozesuari, teknologiei, pertsoneri esker hazten joan daitekeena. Proiektu hori, gainera, mundura zabaltzen da eta nazinoartera zabaldu daiteke nazinoartekotzeko laguntzakaz, eta gehiago hazi daitekeen eta 3I lako laguntzak jaso leikezan proiektu bat, inbersino garrantzitsuak egiteko, milioi erdiraino itzuli beharrik barik.

Eta ez ahaztu proiektu hori, ibilbide hori ezin hobeto garatu leikela kooperatiba batek, alkarte txiker batek, ezin hobeto, aitatu barri dodazan laguntza guztien onuraduna dalako. Ibilbide bera egin leike, S Coop batek, SL batek, SA batek, SAL batek, dana dalakoak, forma juridikoan diskriminetan ez dogulako. Ekonomia Sustatzeko Sailak barrikuntzan, proiektu barritzaileetan, egiten dau aukeraketa, bilatzen doguna da produktuan, prozesuetan, merkatura hurreratzeko moduan, helburuko bezeroarentzako konponbideak aurkezteko moduan elementu bereizgarria daukien barritzaileak izatea, oso garrantzitsua. Guretzat be kooperatibak sektore estrategikoa eta garrantzitsua dira herri honentzat, eta aitatu dozuzan datuek eta beste askok erakusten dabe, benetan, hori, eta mahai gainean dagoz.

Eta gero gauza bat esan gura deusut, hau da, zure hitzaldiaren lehenengo zatian datuak eta inori mesederik egiten ez deusien informazioak nahastau dozuz. Izan be, ondorio oker batzuk atera dira, eta nahastau baino ez dogu egiten. Hemengo datu bat hartu dozu, hango datu bat, beste leku bateko beste datu bat, eta zuzenak ez diran ondorio batzuk atera dozuz. Uste dot guri jagokula informazioa ondo aztertzea eta ondorioak behar dan lez emotea.

Eta, era berean, ebaluazinoagaz apur bat jarraituz, kezkatzen zaituen gauza bat dalakoan, esan behar deusuet martxan daukaguzan laguntza-programa horreek guztiak dirala-ta, Dekretuetan berariaz azaltzen dala zer baldintza bete behar diran aurkezteko, zelan justifikau behar dan laguntzinoa, etab., horreen guztien atzean Saileko edo BEAZeko teknikari bat dagoala, jarraipena egiten dauena, eta horregaz egiten doguna ez dala bakarrik fiskalizatea, fakturak, ordainketak, ondo justifikau diranak eta abar. Horrez ganera, zelan dagozan, zer behar



daben galdetu eta beste programa batzuetara be aurkeztera animetan dira, eten barik barritzen doan zerbitzu-sorta zabala erabili daien, eta, benetan, barritzaileagoak eta lehiakorragoak izan daitezcan lagundu. Besterik barik, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Basurko Urkiri.

A continuación pasamos al quinto punto, en el que trataremos el tema presentado por el señor Emilio Lobato Pascual:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2023/0000263](#))

Autor: Lobato Pascual, Emilio (EB)

Asunto: Medidas a poner en marcha para el impulso del transporte público en Bizkaia.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2023/0000263](#))

Expediente: ([11/B/18/0004200](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2023/0000263SE](#))

Egilea: Lobato Pascual, Emilio (EB)

Gaia: Bizkaian garraio publikoa bultzatzeko abian jarri beharreko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2023/0000263SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0004200](#))

Por tanto, es turno del juntero que ha presentado la iniciativa, el señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

Gómez Viar jauna, gaur Kontroleko Osoko Bilkurara ekarri dogun itaunaren justifikazioan adierazo deusugunez, azken urteotan hainbat kolektibok, herritarren zati handi batek eta nazinoko eta nazinoarteko hainbat erakundek azpimarratu dabe garraio publikoaren sustapena funtsezko piezatzat hartu behar dala etorkizun ekonomiko eta ingurumeneko jasangarriago bati begira, herritarren beharrianakaz eta erakundeek hainbat forotan hartutako ingurumen-konpromisoakaz bat eginaz.

Europar Batasunak berak konpromisoa hartu dau hemendik 2050era neutraltasun klimatikoa lortzeko. Horretarako, adierazoten deuskue garraioaren sektoreak aldaketa handia egin behar dauela, eta eraldaketa horrek berotegi-efektuko gasen isuriak % 90 murriztea ekarriko dauela, eta, aldi berean, herritarrentzako konponbide eskuragarriak bermatuko dituala. Eta azpimarratu gura neuke herritarrentzako eskuragarria izate hori, geroago horretara itzuli gura neuke eta. Gure talde politikoaren eretxiz, erakundeetan azken horretan garrantzi handiagoz eta ausartago lan egin behar da.

Ondo dakizunez, eta azken aldian danon ahotan egon danez, Europar Batasunaren konpromiso sendoak, Estaduko Gobernuan eta, jakina, tokiko gobernuetan be islatzen danak gure garraio-sistemak deskarbonizetari jagokonez, garraio publikoa garraio pribaduaren aurrean sustatzeko helbururantz pausuak emotera konbidatzen gaitu. Izan be, garraio pribadua askoz gehiago kutsatzen dau, eta gehiago eragiten deutso ingurumenari. Uste dot honezkero hori ez geunkela eztabaidatu behar, nire ustez danok argi euki beharko geunken



oinarrizko abiapuntua dalako. Trenbideko garraioa da, seguru asko, gaur egun gitxien kutsatzen dauena, eta Bizkaibuseko autobusen flota eguneratzen doa, gitxiago kutsatzen daben unidade barriak erositak. Danok gagoz horren jakitun eta, jakina, Gómez Viar jauna, zorionekotzat daukagu. Horreek dira herritarren zati handi batek eskatzen deuskuzan betebeharren parte bat.

Era berean, Europar Batasunak atzeratu barik egiteko estutzen gaitu. Orain, formula desbardinakaz, oraindino garraio publikoa ohiko moduan erabilten ez daben herritarrei bide horretan pausu bat emon daien konbitea egin behar jake. Horren aurrean, oinarrizko galdera bat egin behar deusagu geure buruari, gai horreetan eskumena daukien erakunde guztiak egin beharreko galdera bat, hain zuzen be: Zergaitik ez dabe herritarrek garraio publikoa erabilten, mobiduteko lehenengo aukeratzat, jakina, ohiko lekuetara mobiduteko orduan? Galdera horregaz ez dot emon lehenago eztabaidatu ez dan gakorik. Zuek, Alderdi Sozialistak, Garraio, Mugikortasun eta Uri Agenda Ministeriotik, planteau dozue. Identifikau eta herritarrentzako kanpaina instituzinonal baten islatu dozue, “Garraio publikoak faltan botetan zaitu” izenekoan. Nahiko modu alai eta hurbilean identifikau dozue, beharbada holan herritarrei mezua modu atseginagoan helarazoteko; izan be, 12 puntu horreek oinarri izan daitezke zerrendatu deusudazan helburuak landu ahal izateko.

Adierazo gura neban, era berean, danok ezagutzen doguzala eta badakigula azken urteotan bizi izan doguzan aparteko inguruabarrak, hain bereziak diranak, eta Espainiako Estaduan garraio publikoaren tarifa-tratamendua aldatzea eragin dabenak. Aldaketa hori, danok ondo dakigunez, aldi baterako da. Tarifa-politika barri hori toki-administrazioei be helarazo jake, eta txalotu egiten dogu. Gogoratu gura dogu gure talde politikoak proposatu ebala erabagi horreek hartu beharko lirakekeela, eta garraio publikoa ikuspuntu ekonomikotik herritarrentzat eskuragarria izatea ahalbidetu; izan be, kasu batzuetan, diru-sarrerak eta soldataren errentagarritasuna nabarmen murriztuta euki dabez, soldata txikitutea ekarri daben pandemien, gerren eta atzeraldien ondorioz, eta prezio eta zerbitzuen igoerek eraginda.

Baina bai zuk eta bai nik, diputadu jauna, badakigu administrazioek ausardiaz eta arduraz hartu dabezane neurri horreek desagertu egingo dirala berandu baino lehen, eta barriro izango dogula abiapuntu genduan tarifa-sistemearen oso antzekoa. Deskribidu doguzan baldintza horreetan oinarrituta, Elkarrekin Bizkaia batzarkide-taldeak hainbat galdera egin geuntsuzan, itaunaren eztabaidarako gidatatzat. Lehenengo eta behin, Bizkaiko Foru Aldundiaren eretxiz, Bizkaiko garraio publikoaren egungo egoerea ezin hobea da edo hobetu daiteke? Hemen, autokritika zintzoa egitera konbidatzen dogu diputadu jauna, ez bere Sailaren lana zalantzan jartzeko, ezta berea be, baizik eta kalidadezko garraio publikoa lortzeko behar diran urratsak emoteko balioko dauen lan-proiektu bat egiteko.

Bigarrenik, honako hau planteetan deusugu: herritarrentzako gogobetetze-inkestetatik harago, danok dakigulako, harrigarria bada be, garraio publikoari buruz urtero herritarrek egiten dabezane protesta ugarien ondorioz, emoitza bikainak izaten dabezala beti. Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, gaur egun eskaintzen dan garraio publikoak benetan beteten dauz Bizkaiko herritarren beharrak?

Hirugarrenik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eretxiz, zein neurri izan beharko lirakeke Bizkaian garraio publikoa sustatzeko eta sendotzeko funtsezko ardatza? Hirugarren galdera hori, gure ustez, hiruretan garrantzitsuena da, eta mesedez ez tranparik egin 2018-2028ko Garraio Plan Estrategikoa lantzea hartu beharreko neurria dala esanez. Plan hau irakurri eta balorauko zenduala uste dot. Plan honetan, etorkizunerako garraio publikoak zelakoa izan beharko leuken jakiteko helburuak planteetan dira, baina ez martxan jarri beharreko ekintzak garatzen dauzan ejekutibo politiko baten neurri argi eta zehatzak. Hori, jakina, zure Sailaren eta etorkizuneko diputaduen lana da, karguan jarraitzen ez badozu, hurrengoena. Ildo horretan, azken galdera bat proponidu dogu, nire berbaldia amaitzeko: zeintzuk izango lirakeke neurri posible horreek definiduko leukiezan lehentasanak, egokitatzat jo ezkerok? Sin más, muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Lobato Pascual. En el turno de respuesta, en nombre de la Diputación, tiene la palabra el señor Gómez Viar.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Mahaiburu andrea, batzarkideak. Hasi baino lehen, esan, Lobato jauna, gustetan jatala zure berbaldia, egia esan, asko gustetan jatala. Gaian sartu aurretik, esan pare bat gauza, lehenengo eta behin, esan behar deutsut zure talde politikoak garraio publikoan egin dauen hobariaren gaia, nire ustez, horrek nahiko zigilu argia eta nahiko markaua daukala, gobernu-taldearena batez be, eta beste eremu batzuetan, Alderdi Sozialistarena. Eta gura dozunean konta neizu zer kostau jakun hori egitea, eta gainera kafea ordainduko deutsut.

Gaian sartuta, egin deustazuzan galderen ordenan erantzuten ahaleginduko naz, beti egiten dodan lez. Garraio publikoaren egoera Bizkaian onena da edo hobetu daiteke? Ba esan deutsudan moduan, gustetan jat zure planteamentua, gauza biak, ezin hobea da, eta, jakina, hobetu be egin daiteke. Ez dago ezer hobetu edo hobetzen saiatu ezin daitekeenik, eta are gehiago garraio publikoa diseinatu zan parametro eta ratioak kontuan hartuta, eta niri dagokidan arloan, Bizkaibusen, ia hamarkada batera ailegauta.

Herritarrei egindako asebetetze-inkestak aitatu deustazuz, harrigarriro emoitza bikainak emoten dabezalako eskaintzen dan garraio publikoak herritarren beharrak asetzen badauz. Ba, zuk dinozun moduan, gogobetetasunaren perzeptzioak emoitza bikainak erakusten badeuskuz, ea egia izango dan Bizkaiko herritarrek holan pentsetan dabela. Ni ez nintzateke harrotuko, eta bikainak dirala ez neuke esango, baina nik uste dot oso pozgarriak dirala. Gogobetetasun-inkestak egiten dauzan enpresak modu erabat independentean egiten dauz, eta sinistu eidazue ez daukala Sailaren jarraibiderik, hau da, hor adierazoten deuskue zer ateraten dan. Nik, beharbada, urte bi izango dira enpresako arduradunagaz berba egin barik nagoala, esan gura dot hemen ez dagoala baldintzarik bape.

Herritarren beharrak asetzen ete dabezan be galdetu deustazu. Esan deutsudan moduan, triunfalista izan barik, eta dana hobetu daitekeela onartuta, garraioari buruzko zertzelada labur bat emon gura deutsut. Bizkaiko biztanleen % 90ek, gitxienez, garraiobide bi daukaz: autobusa eta trena. Bizkaiko biztanleriaren % 92 garraio publikoko geltoki batetik 300 metro baino gitxiagora bizi da. Biztanleriaren % 97 garraio publikoko sareko geltokiren batetik 500 m baino gitxiagora dago. Eta ia osotasunera goaz, Bizkaian bizi diran biztanleen % 98ra, lanegun baten 34 espedizino baino gehiago daukiezalako, eta, orokorrean gitxienez orduko maiztasuna daukielako, 60 minuturo. Azkenik, 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko udalerrri guztiek zuzeneko konexinoa daukie garraio publikoan Bilbogaz. Holan jarraitu geinke, baina tira, denporea amaituko litxakit.

Orduan, hirugarren eta laugarren galderei jagokenez, onartuko deustazu, eta tranparik egin barik, batu egin gura dodaz, azkenean garraio publikoa sustatzeko eta sendotzeko funtsezko ardatz diran neurriak eta neurri horreen lehentasunak aitatu deustazuzalako. Jakina, Garraioaren Plan Estrategikoa aitatu behar deutsut. Ondo dakizunez, orain dala gitxi amaitu da 2035erako Bizkaiko garraioari buruzko azterketa-batzordea, eta ondorio horreek Batzar Nagusietako Mahaitik pasau dira, eta nire ustez, hurrengo Osoko Bilkuraren baten gauzatuko dira, eta hor uste dot hemen ordezkatura dagozan alderdi politiko guztiek horri buruzko eretxia emongo dabela, Batzorde horretan egin dan moduan.

Esan behar deutsudana da ez dodala ulertzen, eta ez jatala oso dotorea iruditzen, ez nireganako, ganerako Ganberarenganako baino, ondorioen txosten hori ekarri aurretik, funtsezko ardatzei, lehentasunei eta neurriei buruz galdetzea. Zu Garraio Batzordeko kidea zara, eta bertatik bertara dakizu diputadu honek zer pentsetan dauen azken legegaldi honetan landu doguzan gai ei buruz: tarifen integrazinoa, intermodalitatea, genero-ikuspegia,



eskatu ahalako geldialdiak, puntu baltzak saihesteko diseinua daukien markesina barriak, bizikletea garraio bide lez bultzatzea, daukagun gainerako garraio bideetan tartekatzea, bizikleta-puntuak, 91 udalerritan instalatutako 110 puntu, Bici-Parc, 7 aparkaleku seguru oraingoz, Ermua, Abadiño, Barakaldo, Bermeo, Derio, Güeñes, Zalla, Bizkai-Bicis, 650 bizikleta elektriko, kargarako 86 estazio, 10 geltoki birtual.

Tira, ba, garraio publikoa osatzen dabean flotetan zero emisino lortzeko helburua, zuk be aitatu dozuna, eta guztiz bat nator, eta zelan ez, Europar Batasunak dinoana, elektrifikazioa. Honezkerok badaukagu autobusen bat % 100 elektrikoa Bizkaitik zirkuletan, hidrogeno-probak, ordaintzeko moduak. Laburbilduz, garraio eraginkorra, gizarte, ingurumena eta ekonomia aldetik. Eta tira, nik uste dot hemen dagoenarentzat oso garrantzitsua dala egiten doguna eten barik aldatzen doan errealidadera egokitzen joatea. Eta ikusi besterik ez dago azken hamarkada honetan errealidadea zelan aldatu dan. Urrin joan barik, atzo aurkeztu genduan mobikortasun aktiboaren aldeko manifestua.

Asko luzatu neinteke, baina amaitzeko, barrero dinot, ez dot ulertzen zergaitik, alde batetik, zure taldea beti kexetan dan Foru Gobernuak ez dauelako entzuten, ez dauelako oposizioaren ekarpenik onartzen, inogaz adostu bako neurriak hartzen ditualako. Eta hara non, esan deusudan lez, ondorioen txostenari buruzko errespenik emon barik be, interpelazio hau aurkezten dozun. Bide batez, azterketa-batzorde horretan ordeztan dozun taldeak zuzenketa-eske bi aurkeztu ditu, eta horreetako bat, genero-ikuspegiarena, gehitu egin da. Beraz, behararen %50 sartu egin da. Uste dot interpelazio hau aurretiazko eta beharrezko pausua izango dala etorkizuneko mozino baterako. Kazetari ezagun batek esaten dauen lez, ikusiko dogu. Eta besterik ez, espero dot galderak erantzun izana, eta zure esanetara nago. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez Viar. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Lobato Pascual.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Buenos días de nuevo.

Lehenengo eta behin, adierazo dozu gure taldea behin eta barrero kexetan dala oposizioari jaramonik egiten ez deusazuelako, Batzordeetan eta Osoko Bilkuran lantzen diran hainbat gai buruz. Maila partikularrean berba egingo dot, nire maila partikularrean eta zure maila partikularrean. Ez dot uste entzun deuskuzunik zutaz esaten, kasu berezi honetan, ez deuskuzula entzuten; ez bakarrik entzun, nik uste dot entzuten dituzula guk egiten doguzan proposamenak, eta ebaluau eta, gura dozunaren arabera, onartu edo ez onartu erabagiten dozula. Seguruenik akordioak lortzeko proposamen gehien onartu deuskuzun diputadua izango zara. Zentzun horretan, inolako kexarik ez, jakina.

Berbaldiaren erdigunera ekarri dozuna ez da nik eztabaida honetara ekarritakoa. Nik eztabaidara ekarri dodana proposamenak ebaluetea zan, herritarrek garraio publikora hurreratzen eta garraio partikularra bertan behera ixten saiatzeko. Eta horrek hausnarketa handia eskatzen dauela uste dot, eta zentzun horretan landu behar neban. Nire lehenengo hitzaldian, gainera, esan deusut Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak kanpaina bat egin dauela. Bertan, zure alderdiko kideek, «Garraio publikoak faltan botetan zaitu» izeneko kanpainan, argi ixten eben kanpainaren ardatza zan esaldian, «Barrero be zerbitzu azkarra, ekonomikoa eta segurua aurkituko dozu, eta autoak baino 3 aldiz gitxiago kutsatzen dau».

Era berean, nire lehenengo agerraldian aitatu deusut Ministerioak kanpaina honetan bertan 12 puntu aitatzen zituala, herritarrek garraio publikoa ez erabiltead planteau ahal izateko. Esan deusudan moduan, hori zan itaunaren helburu nagusia, eta ez Bizkaiko garraio



publikoaren zerbitzuaren kalidatea ebaluetea, zuk azaldu dozun moduan. Adierazo deusudan kanpainako 12 puntu horreetatik, nik horreetako bi geratuko neukez, edo azpimarratuko neukez, hartuko neukez, nire ustez funtsezkoak izan daitekezalako adierazoten nabilen helburuari begira. Kanpaina horren 3. eta 11. puntua dira. Irakurtzera konbidatzen zaitut, seguruenik irakurriko zenduan. Lehenengo puntua 11.a da, "Nire inguruan ez dago garraio publikoaren konbinazino onik" izenekoa. Uste baino ohikoagoa da hori, baina, jakina, datuak mahai gainean jarri deuskuzuzanez, Bizkaiko garraio publikoa nahiko modu errazean erabilteko aukerea dago.

Baina, zergaitik ez doa biztanleria hori garraio publikora? Ibilgailu pribadua erabilten daben erabiltzaile askok garraio publikoa erabilteko malabareak egin behar izaten dabez askotan, ordutegien eta zerbitzuen koordinazinoari jagokonez. Maiztasunak eta joan-etorriak, beharbada ez dira nahikoak? Ez dakit, gure talde politikoari behintzat, lurraldeko herritarrek helarazoten deuskuezan eskari nagusiak izaten dira. Horretan lan handia egin behar da, eta, gure ustez, zure Sailaren egunerokoa alderdi horreek hobetzen saiatzea da, baina, askotan egiten dogu topo zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoaren horma ohiko eta errepikariagaz. Geroago itzuliko naz, denporea badaukat.

Kanpaina honetako hirugarren puntua nahiko argia da, dino "garestia egiten jat hileko abonua prezioa". Artez esango dot, nire jarrera argi geratu daiten. Garraio publikoa karua da, legealdi honetan bertan Ganbera honetan egin dodazan berbaldiak jarraitu badituzue, ez zarie harrituko hori entzutearren, askotan errepikau dot eta. Kontuan hartzen badogu familia nahiko normala dala kideen kopuruari jagokonez, aita, ama, eta seme-alaba pare bat, eta garraio publikoaren aldeko apustu hori, hau da, garraio publikoa izatea joan-etorrien oinarria, familia tipo horrek hileko ordainketak ordaintzeak dakarren gastua neurriz kanpokoa da bere hileko diru-sarrerakaz konparata. Familia horrentzat sarritan merkeagoa izango da ibilgailu pribaduan joatea garraio publikoan baino, batez be bide laburretan.

Hori erakundeok ezin dogu onartu, mobikortasun jasangarriari buruzko eztabaida karta-piloa lez jausiko jakulako. Familia bati ezin deusagu eskatu garraio publikoa erabilteko holako kasuak gertatzen diranean, tarifa-politikea aldatzen ez badogu. Inork ez dauka dirua sobran bizitzea egokitu jakun garai honetan, eta erakundeok herritarren ondoizaterako oinarriak ezarri behar doguz, alderdi horreek modu garrantzitsuan zainduz. Gai batzuk babestu egin doguz, eta erakundeek babestu egin behar dabezala onartu dogu. Horreetako bat, adibidez, kalidatezko osasun publikoa da, gure ustez gobernuek gure zergakaz kudeatu behar dabena, eskubidetzat hartzen dogun zerbitzu bat itzuliz, gure bizi-kalidaderako funtsezkoa dalako. Gauza bera jazotzen da hezkuntzarekin eta erakundeek kudeatzen dabezan beste zerbitzu batzukaz, gainkosturik barik zergen bilketan emondakoaz harago. Gure egunerokotasuna baldintzatzen daben egoera horreei erreparetan badeutsegu, argi dago beste udalerrri eta probintzia batzuetara mobidutea gero eta garrantzitsuagoa eta nabarmenagoa dala. Gure errutinaren oinarri hori ezarri ezean, nabarmen mugatuko gindukez ikasteko eta behar egiteko lekua aukeratzeko orduan.

Horregaitik, nire talde politikoaren eretxiz, lekuz aldatu ahal izatea oinarrizko eskubide bat da, eta herritar batek be ez leuskio uko egin behar eskubide horri, bere egoera ekonomikoa edozein izanda be. Denpora amaitzen joata, eta ez daukat astirik interbentzinoaren zati bat azaltzeko, lehenengoa erantzuten asko zentrau nazelako. Baina esan gura dot diputadu jaunari entzun gura deusadala, adierazi deigun zein neurri daukazan gogoan bere sailak, lehen esan dodan moduan, kudeaketa honen etorkizunari begira. Sin más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lobato Pascual. En el turno de respuesta tiene la palabra, en nombre de la Diputación, el señor Gómez Viar.



El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Lehenengo eta behin, Lobato jauna, eskerrak emon gura deusudaz akordioetara heltzeko daukazun jarreragaitik. Nik be eskerrak emon gura deusudaz hemen, eta, oro har, Batzordeari, inoiz ez dogulako arazo handirik izan Bizkaiko garraio publikoaren mesedetan akordioak lortzeko.

Herritarrei garraio publikora hurreratzeko zer proposamen egin behar deuseguzan esan deustazu. Nik uste dot horreetako asko lantzen egon dan eta eztabaidatzen egon dan horretan islatuta dagozala. Nire ustez, bizkaitarrei ez jake heroi izatea eskatu behar, hau da, garraio publikoagaz bat egin ahal izatea erraztu behar jake, eta hori danok ulertzen dogu, azkenean tarifak integratzea dala, zonaldeak murriztea, etab.

Proiektu horren puntu bi aitatu deustazuz, "Garraio publikoak faltan botetan zaitu", 3. puntua, eta 11. puntua. 3. puntutik hasita, garraio publikoaren prezioa aitatu dozu, karua, merkea. Ba, nik uste dot nire Saitetik beti jaubetu garela prezioaren kontuaz. Gogoratu behar deusut ni Garraioetako foru diputadua nazanetik ez dirala inoiz igon Bizkaibuseko garraio publikoaren tarifak. Ahalegin handia be handia egin dogula, eta horretan eskerrak emoten deusudaz zuri eta Batzordeko ganerako jenteari, aldeko izatea, mobikortasuna errazteko, ze bat nator, baita be, ezinbesteko eskubidea dala, eta gero eta funtsezkoagoa danontzat, eta horretan ibili gara lanean.

Errentagarritasuna, joan-etorriak konbinetea, maiztasunak eta abar be aitatu dozuz. Ba horretan oinarritzen da talde hori, azterketarako batzorde hori eta hona ekarri behar ditugun ondorioak, eta hori indarrean ipini behar dogu. Lehenengo eta behin, diagnostikoa egin dogu, orain dala 10 urte egin zan eta eboluzionau egin dauen zerbaitetan oinarritutako diagnostikoa, eta danok esaten dogu hobetzeko modukoa izan behar dala.

Errentagarritasuna be aitatu dozu, izan be, nire ustez, Bizkaiko Foru Aldundiak garraioan egiten dauen ahalegina handia baino handiagoa da; hau da, ez dogu begiratzen, edo beste era batera esateko, gure parametro nagusia ez da garraio publikoa errentagarria izatea, garraio publikoa inbersinoa da, eta daukan estaldura-mailan, niri jagotanez, ziur esan neizu errentagarritasunagaitik balitz askoz be garraio txarragoa eukiko geunkela, askoz konexino gitxiago eta askoz maiztasun gitxiagogaz.

Orokorrean, eskertzen deusut hitzaldiaren tonua. Esan behar deusut horretan jarraituko dogula lanean, aurkeztu arte itxarongo dogula, eta danon artean onartu eta osotzen doguna, aurrera eroan beharko dogu. Eta, jakina, nire aurretik egon diran diputaduek esan daben moduan, legealdia amaitu eta hilabete bira, dagoanak edo dagozanek, a posteriori, hori islatu beharko dabe, Bizkaian orokorrean garraioaren onerako baino ez dana izango, eta gu guztion onerako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez Viar.

Y el punto sexto del orden del día es la pregunta presentada por la señora Eneritz De Madariaga Martín:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000239](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: Reforma fiscal en Euskadi.

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzeari:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000239SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Zerga-erreformea Euskadin



Documento
[\(R.E.11/E/2023/0000239\)](#)
Expediente: [\(11/B/25/0004188\)](#)

Principal:

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2023/0000239SE\)](#)
Espedientea: [\(11/B/25/0004188\)](#)

Es, por tanto, el turno de la apoderada que ha presentado la iniciativa, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta.
Buenos días.

Oin dala gitxi, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Alderdi Sozialistak Euskadin erreforma fiskal bat martxan jartzeko asmoa iragarri zenduen. Erreforma horren oinarriak zeintzuk izango ziran adierazo zenduen. Akordioaren baldintza horreen artean honako honeek egozan: lehenengo eta behin, alderdi biek 2013ko eta 2018ko zerga-erreformen balorazino positiboa egin zenduen, azken zerga-erreformek markau daben espiritua ez aldatzea adostu zenduen, eta zerga-erreforma progresiboa diseinatu gura zenduela adierazo zenduen, desbardintasun sozialen kontra burrukatzeko tresna moduan.

Orain arte, Bizkaiko Ahaldu Nagusiak ez dau akordio horren ganeko adierazpen publikorik egin, orain arte Biscay Model diseinetako lanen buru izan dan arren, Bizkaiko Lurraldearentzat berezkoa dan zerga-eredu hori, hain zuzen be. Hori dala eta, talde honek, Elkarrekin Bizkaiak, hau galdetu gura deus: zer balorazino egiten dozu erreforma fiskalaren iragarpenaren terminoei eta egokitasunari buruz, hauteskundeak egiteko hilebete gitxi falta diranean? Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

En el turno de respuesta tiene la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Gracias señora presidenta.

Ahaldu Nagusi honek adierazpenik egin ez izana, Foru Gobernu osotzen daben alderdi politiko biek marketan daben jarreran, tira, gauza bitxia da. Eta Biscay Modelen lanei jagokenez, gainera, hartutako erabagi horregaz kontraesanean balegoz lez berba egiten dozula emoten dau, eta ez da holan, ez da holan.

Foru Gobernuari eusten deusien alderdi politiko bien balorazinoa, terminoak eta egokitasuna oso ona da, barrero dinot, oso zuzena eta egokia. Tribuna honetan askotan azpimarratu dodaz zerga-aldaketak, eta egokitzat daukadaz zertarakoa dagoanean, ez beste barik egitea. Ni ez nator bat hemen entzun dodazan baieztapenakaz, zure taldekoak eta beste talde batzuetakoak, hau da, beharrezkoa dala zerga-erreforma bidezkoagoa, bidezkoagoa; ze egungo fiskalidatea, zerga-sistema hau, bidezkoa da, bidezkoa da, progresiboa da. Dakizuenez, konparazinoa egin neike Batzordean, Europako beste herrialde batzuetakoakaz konparauta, ustez bidezkoagoak diran zerga-sistemak daukiezanakaz, eredu moduan jarten doguzanak beti. Gure zerga-sistemak, 2018an egindako aldaketakaz, oso ibilbide garrantzitsua izan dau zenbakietan, eta zenbakiak ipinten dodaz.



Bizkaian, 2015ean 7.524 milioi euro batu ziran, 2019an 9.237 milioi euro, eta 2022an, likidatu barrian, 10.495,8 milioi euro. Eta hori guztia krisi ekonomiko bigaz, oso garrantzitsuak izan diranak, osasun-krisia eta gerra European. Beraz, Bizkaiko zerga-sistemak bere garaian ezarritako baldintzak eta espirtua bete ditu gitxienez: diru-bilketea bermatzea, kalidadezko zerbitzu publikoak izateko; eta, aldi berean, jarduera ekonomikoaren lehiakortasunari laguntzea, kalidadezko enplegua sortzeko.

Eta Biscay Model fiskalitate eredu bat da, espirtu eta printzipio horreek beteten dauzana. Baina, gainera, egokiak dira Garapen Iraunkorreko Helburuak beteteko, eta helburu horreek bete egin behar dira Lurraldean hasi doguzan trantsizinoetan be. Eredu hori eta bertako araudia, dakizuenez, Zerga Koordinazinarako Organoan dagoz gordeta, eta lagungarria izan behar dau, eta lagungarria izango da etorkizunean egin daitezkezan aldaketak egiteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Diputado General.

En el turno de respuesta, tiene la palabra la señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora presidenta, gracias también al señor rementeria.

Zure erantzunaren arabera, nik, begira, zuri entzun ondoren, uste dot orain argiago daukadala iragarpena egindako astean sumetan nebana. Izan be, zuri entzun ondoren, eta Iruarrizaga jaunari be entzun ondoren, ze ezin doguz hitzaldi biak gaur batu barik itxi, uste dot argiago geratzen dala hau hauteskunde-iragarpen bat izan dala, zeozer serioa eta edukiduna baino. Eta hauteskunde-iragarpen bat da, eta, gainera, ez dator lehen Andrade jaunari aitatu deusazuzan PowerPoint horreekaz batera, hain zuzen be horregaitik, zero edukia daukalako. Hara, ez zara oso sinisgarria, ganera gaur nik uste dot argi baino argiago itxi dozula.

Begira, irudipena daukat Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Alderdi Sozialistaren arteko akordioak, batez be, sendotasun faltea daukala. Eta sendotasun faltea dauka zuk gaur jarduera ekonomikoa barriro bultzatzeko erreforma honen beharra dakarzulako. Hori Euzko Alderdi Jeltzaleak asko berba egiten dauen gaia da, trantsizinoak, digitala, ekologikoa; baina progresibotasunaz berba egitea asko kostetan jatzue. Zuek ez dozue hori sinisten, eta gitxiago sinisten dozue hori desbardintasun sozialen kontrako burrukarako tresna bat dala. Izan be, zuek ez dozue inoiz kasualidadez berba egiten horri buruz, eta gaur barriro ez dozu berba egin, eta ondo egongo litzateke, ganera, gai horreetan ados jartzen hastea, ze guk, benetan dinotsut, ziur gagoz ez dala lehentasuna zuentzat, ezta helburua be. Eta, seguruenik, holan ikusiko da hurrengo erreforma fiskalean. Izan be, holan ikusi da azken urteotan aurreko zerga-erreformek eta egin diran Foru Dekretu Arauemoileen erretolikeak jarraitu daben ildoan.

Eta zuk dinozun moduan, “Baina helburu baterako balio izan dau, hau da, asko batu dogu”. Eta esan dozu, “Begira 7.500 milioi, 9.210 milioi, 10.000 miloi”. Baina, ondo batu da? Arazoa horixe da, eta segurutik persona guztientzat bidezkoagoa dan beste diru-bilketa eredu bategaz, diru-bilketearen emoitza bera lortuko geunke, eta Bizkaian jentea askoz hobeto biziko litzateke. Hori da kontua, ez legoke hainbesteko desbardintasun sozialik. Horretaz berba egin behar dogu gaur, ez diru asko batzen dan ala ez. Beste diru-bilketa eredu bategaz be gai gara zerbitzu publikoei eusteko, probau, ea posible dan. Nire ustez, ez da sartzen zuen buruko eskeman.



Hara, sinisgarritasuna kentzen deusun beste elementu bat orain esango deusudana da, oximoron bat da berez; hau da, ezin da aurreko erreformatako espirituari eutsi gura izan, eta, aldi berean, progresibotasunaz eta gainerakoez berba egin, ez, ez da erreala.

Eta Biscay Model ereduaz berba egin dozu, guk kontrajarriztat joten dogun zeozer balitz lez. Ez, arazoa da non dagoan lan hori, Bizkairako eredu hori diseinetako gastau diran 500.000 € horreek, non dagoz? zaborretara bota dira? zer egin dogu eurekaz? zerga-erreforma honen barruan egongo da? Nik uste dot zu oso positibo zagozala gaur, baina uste dot Alderdi Sozialistearen eta Euzko Alderdi Jeltzalearen aldetik zeozelan ez dala kontuan hartzen, ez zu zeu ez Ganbera hau be, iragarki honegaz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín. En el turno de respuesta, tiene la palabra el señor Diputado General.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: De Madariaga andrea, zelako gauzak ikusten dozuzan, egia esan, zelako gauzak. Hara, barriro esango deusut, oso denpora gitxi daukat, baina barriro dinot, zuk hainbeste kritiketan dozun eta hainbeste kritikau dozun zerga-eredu horrek ekarri dau, krisi ekonomiko bi izan arren, gerra euki arren, Bizkaian azken 8 urteetan diru-bilketaren % 40 gehiago izatea, % 40 gehiago. 7.500 milioi eurotik 10.500 milioi eurora.

Eta desbardintasunei buruz berba egiten deustazu. Begira, desbardintasunik handiena da diru nahikorik eta diru-bilketa nahikorik ez eukitea hezkuntza unibersala, osasun unibersala, gizarte-prestazinoak emoteko, horreek dira gizarte baten gakoak. Eta zuk esaten dozu, “Ez da zuek ez dozuela sinisten”, ez, sinisten ez dozuenak zuek zarie. 40 urte daroaguz Lurralde honetan desbardintasunak kentzeko lanean, 40 urte luze lanean, bai, Euzko Alderdi Jeltzaletik, bai eta Alderdi Sozialistatik be, gizarte hau daukagun bezain aurreratua euki daigun. Baina beti gai bat argi, ez gara inoiz konformetan, ez gara inoiz konformetan.

Argi dago zerga-aldaketak egin behar dirana, orain arte egin doguz, barriro dinot, zenbaki argiakaz egin doguz. Baina gure zerga-sistemaren progresibotasunak eta ekidadeak Europako beste sistema batzuekaz konparau egin dabe. Begiratu Europara eta egin daigun konparazinoa.

Biscay Model. Biscay Model Zergak Koordinetako Organoan dago, Lurraldetik egin dogun azterketa guztiagaz, eta, jakina, lurralde honetan egin behar doguzan eraldaketa guztiak egokitzeko balioko dau, eta egiten hasita gagoz. Eta etorkizunean egin beharreko zerga-aldaketarako balioko dau, duda barik. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Diputado General.

En el punto 8 del orden del día analizaremos la pregunta presentada por el señor Emilio Lobato Pascual:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2023/0000262](https://www.euzko-legiak.eus/legislacion/legislacion-2023/legislacion-2023-01/legislacion-2023-01-11))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2023/0000262SE](https://www.euzko-legiak.eus/legislacion/legislacion-2023/legislacion-2023-01/legislacion-2023-01-11))



Autor: Lobato Pascual, Emilio (EB)
Asunto: Construcción de la Variante Oeste de Ermua.
Documento **Principal:**
[\(R.E.11/E/2023/0000262\)](#)
Expediente: [\(11/B/25/0004199\)](#)

Egilea: Lobato Pascual, Emilio (EB)
Gaia: Ermuko mendebaldeko saihebideta egitea
Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2023/0000262SE\)](#)
Espedientea: [\(11/B/25/0004199\)](#)

Por tanto, es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Señor Lobato Pascual, tiene usted la palabra.

El Sr. **LOBATO PASCUAL** jaunak: Gracias de nuevo.

El 7 de junio del año 2022, Interbiak adjudica a la UTE Ermua Oeste un contrato por valor de 593.123€ IVA incluido, que tiene como objetivo la contratación de servicios de asistencia técnica para la redacción del proyecto de actualización del proyecto de construcción de la variante oeste de Ermua, fase 1, Urtia. Esta contratación se debe realizar por la caducidad del anterior proyecto, lo que supone un nuevo retraso en una obra que debería estar finalizada desde el año 2016, además de un sobrecoste económico para las arcas públicas. Por ello, mi grupo juntero, Elkarrekin Bizkaia, formula la siguiente pregunta al diputado de Infraestructuras y Desarrollo Territorial: ¿cómo valora su gestión en lo referente al sobrecoste producido por la dejadez de la Diputación Foral de Bizkaia en la ejecución, en tiempo y forma, del proyecto de la variante de Ermua?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. En el turno de respuesta, por parte de la Diputación, tiene la palabra el señor Pradales Gil.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Eskerrik asko. Junteros y junteras, buenos días. Señora presidenta, buenos días.

Kudeaketa arduratsu eta zorrotzat jo dot, Lobato jauna, aurrekontuan zailtasun handiak izan arren, 2013. urtean, Ermuko saihebidetaren jatorrizko proiektua, 2000ko lehenengo hamarkadako zana, martxan jarri zan unetik bertatik, modu adostuan eta partekatuan erabagi genduan, bai Legebiltzar honetan bai Ermuko Udalagaz batera, Ermuko saihebidetari faseka ekitea eta hegoaldeko saihebideta deritxanari ekitea. 2018ko irailean, eta lau urte baino gehiagoko obren eta 74 milioi euroko inbersino publikoaren ondoren, hegoaldeko saihebidetari hori inauguratu ahal izan genduan. Saihebidetari horrek nabarmen hobetu dau Ermurako irisgarritasuna, baina baita milaka ermuarren bizi-kalitatea be.

Arduratsua, izan be, Ganbera honetako talde guztiek, 2017tik 2019ra bitartean, Errepideen bigarren Lurralde Plan Sektorialari buruzko diagnostikoak partekatu ostean, 2019ko urtarrilean, Ganberak agindu argi bat ezarri eban, jarraibide eta erispide orokorren dokumentu batez, Ermuko mendebaldeko saihebideta, oraindino egin barik egoana, Urtia eta Goitondo faseetan gauzatuko zala agintzen euskuna. Urtia lehenengo seiurtekoan eta Goitondo bigarrenetan. Horretarako, eguneratu egin behaa zan jatorrizko proiektua. Bide batez, zure taldea jarraibideen dokumentuaren kontra agertu bazan be, kasualidadez gai zehatz horren alde bozkatu eban.

Era berean, arduratsua da, legealdi honetan atzerapenik barik ekin geuntsalako Bizkaiko Errepideen Lurraldeko Arlo Plana onartzeko tramitazioari. Dokumentu



hori funtsezkoa da plangintzan, Ermuari eta mendebaldeko saihsbideari buruzko gaietan, eta, jakina, Urtiakoa gauzatzeari lehentasuna emotea aurreikusten da, eta proiektu hori eguneratzea.

Horregaitik, 2021eko zemendiaren 23an Errepideen Lurralde Plana onartu ondoren, Urtiarako mendebaldeko saihsbide hori eregiteko proiektua lizitatzeari ekin geuntsan, LAPa behin betiko onartuta egoteari itxaron barik. 2022ko apirilean esleitu genduzan lanak, eta zuk esan dozun moduan, joan dan 2022ko bagiletik, erredakzino taldea eraikuntza proiektua eguneratzeko lanean dabil. Proiektu horrek 32 hile aurreikusten dauz lanak egiteko, eta, beraz, 8 hilabete daroaguz lanean, eta horrek esan gura dau urte bi barru proiektua amaituta egongo dala eta Urtiako mendebaldeko saihsbidearen obrak lizitau ahal izango ditugula.

Erantzukizuna, beraz, eta lan zehatza, konpromisoa eta ekintza. Egitateak, ez berbak, hurrengo hilebeteetan jazoko denaren zain egon barik. Izan be, esan dodan moduan, proiektu hori 2000. urteko lehenengo urteetakoa da, 12 urte baino gehiago ordutik, eta ingurumenari, bide-segurtasunari, eta lurzoruei eta tunelei buruzko legedia eboluzionau egin dau eta aldatu egin da. Legegintza-esparru askoz zorrotzagoak eta bermatzaileagoak dira orain, eta egokitu egin behar doguz eta proiektu barrira eroan.

